

FEVAS



Manifestua

Foru eta Udal Hauteskundeak 2023

ELECCIONES

2023

HAUTESKUNDEAK

**MI
VOTO
CUENTA**

#MiVotoCuenta



**NIRE
BOTOAK
BALIO DU**

#NireBotoakBaliodu

**“Zer eskatzen diegu adimen-desgaitasuna,
garun-paralisia eta autismoaren espektroko
nahasmenduak ditugun pertsonak alderdi
politikoei?”**

Sarrera

Adimen-desgaitasuna duten pertsona askok,
garun-paralisia duten pertsonak
eta autismoaren espektroko nahasmendua dutenek
hartu dugu parte Manifestu honetan.

Manifestu honek
alderdi politikoei eta gizarte osoari
egiten dizkiegun eskaerak jasotzen ditu.

Manifestu hau egiteko
ideia asko bildu eta eztabaidatu ditugu.
Bilera hauek gugan pentsatzeko ere
balio izan digute.

Askotan iruditzen zaigu desgaitasuna dugun pertsonok
ez garela existitzen politikarientzat.
Horregatik, gehiago kontuan har gaitzatela eskatu nahi diegu,
bizitza politikoan ordezkaritza handiagoa izatea
gustatuko litzaiguke.

Politikariek “ez dela inor atzean utzi behar”
esaten duten arren,
askotan atzean uzten gaituzte.
Gogorarazi nahi diegu bizitza azkar pasatzen dela
eta gauza batzuk ezin direla gerorako utzi.

Badakigu Manifestu honetan
zehazten ditugun eskari batzuk
ez daudela Aldundien esku,
baina ziur zuen alderdiei helarazi ahal dizkiezuela,
hazter arduratu daitezten.

Gauza batzuk ondo ere egiten dituzue;
beraz, zorionak eman nahi dizkizuegu
egiten ari zareten lan publikoagatik.

Jarraian, hainbat arlotan
ditugun eskaerak zehaztuko ditugu.

Irisgarritasun unibertsala

Irisgarritasuna oso garrantzitsua da guretzat.

Arkitektura-oztopo guztiak kendu behar dira leku guztietara sartu ahal izateko.

Eskailerak kendu behar dira, arrapalak egin, igogailuak eta espaloi zabalak jarri eta oraindik egiteko dauden gauza asko.

Irisgarritasun fisiko eta sentsorialaz gain,

irisgarritasun kognitiboa aldarrikatzen dugu.

Informazioa Irakurketa Errazean behar dugu.

Gure proposamena “Jar iezadazu erraz nik uler dezadan” da.

Informazioa ulertu behar dugu

parte hartu ahal izateko eta

gure eskubideak bete daitezen.

Denak izan behar du errazagoa eta argiagoa ulertzeko.

Adibidez:

- Medikuekiko komunikazioa
- Bankuetako paperak
- Administrazioarekin egin beharreko izapideak
- Hauteskunde-programak eta mitinak.

Beharrezkoa denean,

komunikazio handigarri eta alternatibo sistemak erabil daitezke, adibidez, piktogramak.

Denak izan behar du errazagoa, gure inklusioa benetakoa izan dadin.

Enplegua

Desgaitasuna dugunok lan-aukera gehiago eta lanpostu gehiago eskatzen ditugu.

Lan Eskaintza Publiko gehiago behar dira eta enpresek kontrata gaitzatela.

Legez dagokiguna eskatzen dugu.

Zenbait lan egiteko gai gara,

lanerako prestatzen gara.

Hala ere, administrazioan eta enpresetan kontzientziazioa falta dela ikusten dugu.

Lanpostu asko egokitu egin daitezke,

laguntza teknikoak eta lanerako laguntza jaso ditzakegu.

Gainera, soldatak igotzea eskatzen dugu,

lan egiteko zortea duten pertsona desgaituek

soldata txikiak dituztelako.

Osasuna

Osasun-arloko profesionalak adimen-desgaitasunean, garun-paralisian eta autismoaren espektroko nahasmenduetan trebatu behar dira.

Osasun-arloko profesional gehiago eskatzen ditugu, arreta medikoa hobea izan dadin eta itxaronaldia murrizteko.

Osasun mentaleko profesional gehiago ere behar dira.

Gure ustez, premia gehien duten pertsonak lehenasuna izan behar dute, eta lehenago erantzun behar zaie.

Pandemiaz geroztik, hitzordu asko telefonoz direla nabaritzen dugu, eta aurrez aurreko arreta nahiago dugu.

Espezialisten hitzorduetan ere atzerapenak ikusten ditugu.

Gainera, baliabide ekonomiko gehiago inbertitu behar dira gure elkarteetan sexualitateari buruzko informazioa eta prestakuntza jaso ahal izateko.

Etxebizitza

Pertsona askok zailtasunak ditugu independizatzeko.

Etxebizitzak oso garestiak dira.

Etxebizitza edo alokairu merkeagoak behar ditugu.

Gure egoera kontuan hartzea eskatzen dugu,

gure soldatak edo pentsioak txikiak direlako

eta ez dugulako aukera handirik.

Non bizi eta norekin bizi

aukeratu nahiko genuke.

Jende gutxiagorekin bizitzeko aukera ematen duten

bizitzeko baliabide txikiagoak baloratzen ditugu.

Gure etxebizitzek,

landa-eremuetan egon arren,

zerbitzu espezializatuak, garraioa, tabernak, kutxazainak

eta beste zenbait gauza gertu izatea gustatuko litzaiguke,

bizitza inklusiboa izan ahal izateko.

Halaber, laguntza duen etxebizitza batera sartzeko hainbeste

denbora itxaron behar ez izatea eskatzen dugu.

Hezkuntza

Hezkuntza-inklusioa benetakoa izatea nahiko genuke.

Horretarako, gure beharretara egokitutako laguntzak, zentroak, materialak eta baliabideak eskatzen ditugu.

Hezkuntzarako dugun eskubidea bete behar da hezkuntzaren etapa guztietan.

Eskoletan sentsibilizazio handiagoa behar da bullying-a edo jazarpena prebenitzeko eta balioetan hezteko.

Irakasle espezializatu gehiago ere eskatzen ditugu, eta desgaitasuna duten ikasleek ikastetxe guztietan behar duten laguntza jaso dezatela.

Garraioa

Garraio irisgarria eta informazioa ere irisgarria izatea eskatzen dugu, irakurketa errazean.

Era berean, gure laguntzaileek garraio publikoan doan bidaiatu ahal izatea eskatzen dugu, beharrezkoa den guztietan.

Taxi egokitu gehiago behar ditugu, garraio publikoetan eserleku gehiago eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku gehiago.

Gainera, gidabaimena ateratzea gustatuko litzaiguke; horretarako, irakurketa errazean egindako prestakuntza eta azterketak behar ditugu.

Garraio publikoan lan egiten duten langileen sentsibilizazio handiagoa ere behar da, autobus-gidarietatik hasi eta segurtasunean dauden pertsonetaraino.

Justizia

2021ean, desgaitasuna duten pertsonentzat oso lege garrantzitsua onartu zen.
8/2021 Legeaz ari gara.

Lege hori betetzeko,
lege-dokumentuen erabilerraztasunean aurrera egitea eskatzen dugu,
eta gugan eragina duten legeak erraz eta modu ulergarrian azaltzea.
Horretarako, garrantzitsua da departamentu guztietan artatzen gaituzten profesionalak prestatzea.

Gainera, polizia-etxeetan eta epaitegietan pertsona bideratzaileak behar dira.
Bideratzaile horiek guztia ulertzen laguntzen digute,
justiziarako sarbidea baldintza berberetan eta diskriminaziorik gabe bermatzeko.

Gainera, zigor penalekin erlazionatutako gizarteratze-programak gure beharretara egokitu behar dira.

Kultura, aisia eta kirola

Gure aisialdiaz gozatzeko,
gure beharretara egokitutako baliabide eskuragarriak
behar ditugu.

Adibidez, hondartzak, turismoa, kiroldegiak, zinema-aretoak,
museoak,

jaiak, antzokiak, umeentzako parkeak...

Informazioak ere irakurketa errazean egon behar du.

Aisialdiari eta kulturari dagokienez, kontuan izan behar da

pertsona askok laguntzailea behar dutela,

bakarrik joaterik ez dutelako edo ez dakitelako,

edo irisgarritasun fisikorik eta kognitiborik ez dagoelako.

Pertsona batzuek ez dute inor laguntzeko

edo ez dute dirurik norbaiti ordaintzeko.

Beraz, batzuek ezin dute

ia ezer egin aisialdian.

Aisialdia eta kultura garrantzitsuak dira,

horregatik, diru gehiago inbertitu behar da gure aisialdian,

elkarrekin gurekin egoteko

eta komunitatean aisialdi inklusiboa

sustatzeko.

Komunitatean bizitzea

Komunitatearen parte gara
eta gauza guztietan gehiago parte hartu nahi dugu.

Horretarako, sentsibilizazio kanpaina gehiago behar direla uste dugu.
Gizarteak ulertu eta errespetatu egin behar gaitu.
Pertsona guztiekiko errespetuan hezi behar da.
Horretarako, gurekin konta dezakete.
Galde diezagukete eta hitzaldiak ere eman ditzakegu.

Halaber, desgaitasuna duten emakumeak babesteko neurri gehiago
har ditzatela eskatzen diegu politikariei.